

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PRUEBA COMÚN

PRUEBA 2015



EUSKARA

PRUEBA

SOLUCIONARIO





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2015eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2015

EUSKARA

Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu.

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa.

Irakurri honako testu hau eta erantzun testuaren ostean datozen galderei.

Txiki-txiki...

Txiki, txiki, txikia... Abesti hau da nire alabak gehien atsegin duena. Lotaratzeko ezin hobea da. Kantatzen hasi bezain pronto, **adi-adi** entzuten du letra eta loak bereganatzen duen arte hortxe egoten da, ixil-ixilik.

Ez dakit abestiak eraginda den edo haur guztiek antzera jokatzeko ote duten baina, kontua da, Dunak txikikeriak gustuko dituela. Hobeki esanda, gauza txikien mundua atsegin du. Zenbat eta txikiago, orduan eta **irrika** gehiago eragiten dio. Ogi pusketak zenbat eta mami gehiago, are gustagarriago ze, mamia bere hatz txikiaz hartu eta bolatxo **nanoak** egin arte txikitzen du ahoan sartu aurretik. Gure alabak lurretik belar pusketak harrapatzea atsegin du eta arropen etiketei begira orduak pasatu ahal ditu. Alferrik oparituko diozu jostailu erraldoi bat, berak askoz arreta gehiago jarriko baitu zure alkandoraren botoian. Txikiaren handitasuna baloratzen du berak eta guri, nagusioi, txikia den ororen presentziaz ohartarazi digu. Izan ere, handitzen goazen neurrian handia den edozerk tentatzen gaitu. Handia hobea balitz bezala. Zenbat eta handiago izan **balioitsuago** balitz bezala. Diru kantitate handia, neurri luzea, auto handia, bi solairutako **etxetzarra**...

Txikien erreinuan gauza txikiek agintzen dute, baina adinean aurrera egin ahala handiak izateko presa daukagu. Eta nagusitzean, gauza handiak eskuratzen galtzen dugu denbora; txikiak gineneko hainbat eta hainbat une zoriontsu nostalgiaz gogoratzen ditugun bitartean. Nire lagun batek dioen bezala “nik, handitzean, txikia izan nahi dut”.

JASONE OSORO

<http://jasoneosoro.com/es/testuak/zutabeak/>



GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu eta arrazoitu erantzuna. (1,5 puntu)

- a. Non argitaratu da? Nori zuzentzen zaio? Nor da igorlea?
- c. Zer da, azalpena, narrazioa ala argudioa? Zergatik? Zertan oinarritzen zara?
- d. Zein testu-generorekin identifikatzen duzu? Zergatik?
- e. Zer beste ezaugarri du testuak hizkuntzari erreparatuta? Adibideak eman.

2. Behean, testuari lotutako baieztapen batzuk dituzu. Esan horietako bakoitza egia (E) ala faltsua (F) den. (1,6 puntu). Oharra: txarto erantzundako bakoitzak puntuazio negatiboa izango du.

- a. Idazlearen alabak "txiki, txiki, txikia..." kantatu behar du lo egiteko.
- b. Abestia arreata handiz eta pentsakor entzuten du umeak.
- c. Neskatxaren izena ez da gure artean oso ohikoa.
- d. Kanta horrengatik ditu umeak gauza txikiak hain gustuko.
- e. Idazlearen ustez helduek gauza handiak hobesten dituzte.
- f. Alabari esker hasi da konturatzen idazlea gauza txikien inportantziaz.
- g. Handitzen garenean, gauza txikiak eta txikitako momentu gozatsuak ahaztu egiten ditugu.
- h. Gauza handien txikitasuna eta gauza txikien handitasuna azpimarratu nahi du batez ere idazleak testu honetan.

3. Zer adierazi nahi du idazleak honako esapide hauekin? (0,9 puntu)

Alferrik oparituko diozu jostailu erraldoi bat

- a. Ez du merezi ezer handirik oparitzea.
- b. Jostailu erraldoiak alfer bati oparitzea merezi du.
- c. Alfertuta begiratzen dio umeak jostailu erraldoiari.

Handia hobia balitz bezala

- a. Gauza txikiak hobeak dira.
- b. Gauza handiak baliagarriagozat hartzen dira txikiak baino.
- c. Handia izatea hobia da zalantzarik gabe.

"Nik, handitzean, txikia izan nahi dut"

- a. Txikiek disfrutatzen dute bizitzaz.
- b. Ez da handituko.
- c. Umeek duten ikuspuntutik begiratu nahi dio bizitzari.



4. Zein da testuaren helburua? (0,5 puntu)

- Alabari gertatutakoak kontatzea, narrazio bat egitea, alegia.
- Alabaren jokabidea abiapuntu, gai bati buruzko gogoeta egitea.
- Umeei dituzten ohitura batzuei buruzko azalpena ematea.

5. Egizu testuaren laburpena (gehienez, sei-zazpi lerro). (1,5 puntu)

6. Deklinabidea: Beheko testuan, parentesi artean, zenbait hitz deklinatu gabe eta zenbait aditz jokatu gabe daude. Deklinatu hitzak testuak zentzua izateko eran. (1 puntu)

Bateko eta besteko (kritika) _____ itotako amak

(Enplegu) _____ utzi eta etxean geratu delako; (ume) _____ haurtzaindegira eraman eta soldata (irabazi) _____ jarraitu duelako. Bi urte arte bularra (eman) _____ erabaki duelako; farmazian (erosi) _____ esnea biberioan ematen diolako. Ohean (jaioberri) _____ lo egiten duelako; haurrak alboko gelako (sehaska) _____ gaua bakarrik pasatzen duelako...

Errudun sentitzen diren (ama) _____ belaunaldia da hau. Gizartean presio handia dago amen gain. Inguruko presioa handia da. Ama bati (edozein) _____ ematen dizkio aholkuak”.

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2448/amatasuna>

7. Berridatzi testuko esaldiak parentesi artean ematen zaizun hitza erabiliz. (1 puntu)

- Abesti hauxe da nire alabak gehien atsegin duena. (gustatzen)

_____ **gustatzen** _____.

- Kantatzen hasi bezain pronto, adi-adi entzuten du letra. (momentuan)

_____ **momentuan**, _____

- Baina adinean aurrera egin ahala, handiak izateko presa daukagu. (zenbat eta ..., orduan eta ...)

Baina zenbat eta adinean _____, orduan eta _____.

- Alferrik oparituko diozu jostailu erraldoi bat, berak askoz arreta gehiago jarriko baitu zure alkandoraren botoian. (eta)

Alferrik oparituko diozu jostailu erraldoi bat, _____ eta.



8. Eman testuan letra lodiz nabarmenduta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (1 puntu)

Hitza	Sinonimoa
a. adi-adi	
b. irrika	
c. nanoa	
d. baliotsuago	
e. -tzarra	

9. Testuko zenbait espresioak balio dute esaten dena modulatzeko, antolatzeko, ideia edo adibide berriak txertatzeko... Lotu testuko hitz horiek (lehen zutabea) testuan betetzen duten funtzioarekin (bigarren zutabea). Kontuz! Bat dago eta sobera. (1 puntu).

-xe , ote , ze, izan ere, kontua da, hobeki esanda

Hitzak	Esanahia edo funtzioa
	Esandakoa birformulatzeko eta zuzentzeko eginkizuna duen testu antolatzailea da.
	Lokailua da eta, batez ere, kausa adierazten du, ondoren datorren esaldiak aurrekoaren zergatia adierazten du.
	Hiztunak zalantza adierazteko edo azpimarratzeko erabiltzen duen partikula da.
	Juntagailua da, menpeko perpaus konpletiboaren aurretik jar daitekeen partikula (bereziki perpausa luzea denean).
	Erakuslearen erroaren ondotik jartzen da, kasu markaren aurrean, zehaztasuna adierazteko.



1.

Gizarte-komunikabideen eremuko testu honen **igorlea** Jasone Osoro idazlea da. Testua **egunkari bateko zutabe**an idatzitako **iritzi artikulua** da. Irakurle orori zuzentzen zaie testu honen bidez. **Testu tipoari** dagokionez, **argudiozkoa** da, idazleak bere gogoetak eta iritzia azaleratzen baititu eta generoari dagokionez, iritzi-artikulua, gorago esan bezala. Azpimarratzekoa da narrazio txatalak baliatzen dituela alabaren jokabidea eta ohiturak kontatzen dituenean, baina helburu nagusia ez da narratzea, baizik eta **bere iritzia adieraztea**: helduok denbora galtzen dugu, batzuetan, gauza handiak lortu nahian, eta ez diegu erreparatzen gauza txikiei. Txikia den oro garrantzitsua ez balitz bezala, txikia izateagatik.

Hizkuntza baliabideei dagokionez, testu subjektiboa da, bere iritziak adierazten ari baita eta, horrenbestez, **lehen pertsona darabil**. Aipagarria da **'gu'** lehen pertsona pluralekoaren erabilera. Plurala darabil (gu, guk, gaitu ...) **irakurleak inplikatzeko eta iritzia orokortzeko**; hala, testuaren arabera, denok jokaten dugu idazleak adierazten duen moduan ('handitzen **goazen** neurrian handia den edozerk tentatzen **gaitu'**). Testuaren hasieran eta bukaeran, berriz, lehen pertsona singularrekoa darabil ('**nire** alabak' '**nire** lagun batek dioen bezala'). Irakurleari ere aipamen zehatz bat egiten dio ('alferrik oparituko diozu...').

Bestalde, etengabe ari da idazlea bi adjektiborekin jokoan: txiki eta handi eta haien sinonimoekin, nanoa, pusketak, -tzarra, erraldoia luzea... Bi antonimoen arteko kontrastean mugitzen da testua: handiaren txikitasuna eta txikiaren handitasuna... Oro har, esaldi laburrak eta zehatzak ditu testuak. Azpimarratzekoak dira konparaziozko egiturak: Zenbat eta txikiago, orduan eta **irrika** gehiago eragiten dio' 'Zenbat eta handiago izan **baliotsuago** balitz bezala', goian aipatutako kontrastea handia/txikia areagotuz.

2. Idazlearen alabak "txiki, txiki, txikia..." kantatu behar du lo egiteko. **F**

- Abestia arreata handiz eta pentsakor entzuten du umeak. **E**
- Neskatxaren izena ez da gure artean oso ohikoa. **E**
- Kanta horregatik ditu umeak gauza txikiak hain gustuko. **F**
- Idazlearen ustez helduek gauza handiak hobesten dituzte. **E**
- Alabari esker hasi da konturatzen idazlea gauza txikien inportantziaz. **E**
- Handitzen garenean, gauza txikiak eta txikitako momentu gozatsuak ahaztu egiten ditugu. **E**
- Gauza handien txikitasuna eta gauza txikien handitasuna azpimarratu nahi du batez ere idazleak testu honetan. **E**

3.

Alferrik oparituko diozu jostailu erraldoi bat

- Ez du merezi ezer handirik oparitzea.**



Handia hobea balitz bezala

b. Gauza handiak baliagarriagoztat hartzen dira txikiak baino.

“Nik, handitzean, txikia izan nahi dut”

c. Umeek duten ikuspuntutik begiratu nahi dio bizitzari.

4.

a. Alabaren jokabidea abiapuntu, gai bati buruzko gogoeta egitea.

5.

Dunak, Jasone Osororen alabak, atsegin du, oso, ‘txiki-txikia’ abestia eta horrez gain, gauza txikiak. Txikiaren handitasuna baloratzen erakutsi die etxekoei. Hala, idazleak diosku helduok, askotan, ahaztu egiten ditugula gauza txikiak, ustez, ‘handiak’ direnak lortzearren. Horregatik, galdu egiten ditugu momentu gogoangarriak eta nostalgiaz begiratzen diegu. Bere lagun batek dioenez, handitzean, txikia izan nahi du, hau da, txikien ikuspuntutik begiratu nahi die gauzei.

6.

Bateko eta besteko (kritika) kritikek / kritikengatik itotako amak

(Enplegu) **Enplegua** utzi eta etxean geratu delako; (ume) **umea/umeak** haurtzaindegira eramán eta soldata (irabazi) **irabazten** jarraitu duelako. Bi urte arte bularra (eman) **ematea** erabaki duelako; farmazian (erosi) **erositako** esnea biberioan ematen diolako. Ohean (jaioberri) **jaioberriarekin** lo egiten duelako; haurrak alboko gelako (sehaska) **sehaskan** gaua bakarrik pasatzen duelako... Errudun sentitzen diren (ama) **amen** belaunaldia da hau. Gizartean presio handia dago amen gain. Inguruko presioa handia da. Ama bati (edozein) **edozeinek** ematen dizkio aholkuak”.

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2448/amatasuna>

7.

a. Abesti hauxe da nire alabak gehien atsegin duena. (gustatzen)

Abesti hauxe da nire alabari gehien gustatzen zaiona.

b. Kantatzen hasi bezain pronto, adi-adi entzuten du letra. (momentuan)

Kantatzen hasten naizen momentuan, adi-adi entzuten du letra.

c. Baina adinean aurrera egin ahala, handiak izateko presa daukagu. (zenbat eta ..., orduan eta ...)

Baina zenbat eta adinean aurrerago egin, orduan eta presa handiagoa daukagu handiak izateko.

d. Alferrik oparituko diozu jostailu erraldoi bat, berak askoz arreta gehiago jarriko baitu zure alkandoraren botoian. (eta)



Alferrik oparituko diozu jostailu erraldoi bat, berak zure alkandoraren botoian arreta handiagoa jarriko du eta.

8.

Hitza	Sinonimoa
a. adi-adi	arretatsu, arreta handiz
b. irrika	desio/ jakin-min
c. nanoa	ñimiñoa, txiki-txikia
d. baliotsuago	preziatu, balio handiko
e. -tzarra	erraldoia, handi-handia

9.

Hitzak	Esanahia edo funtzioa
hobeki esanda	Esandakoa birformulatzeko eta zuzentzeko eginkizuna duen testu antolatzailea da.
izan ere	Lokailua da eta, batez ere, kausa adierazten du, ondoren datorren esaldiak aurrekoaren zergatia adierazten du.
ote	Hiztunak zalantza adierazteko edo azpimarratzeko erabiltzen duen partikula da.
ze	Juntagailua da, menpeko perpaus konpletiboaren aurretik jar daitekeen partikula (bereziki perpausa luzea denean).
-xe	Erakuslearen erroaren ondotik jartzen da, kasu markaren aurrean, zehaztasuna adierazteko.

GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO HARREMANA	
GALDERA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK
1	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak eta horien formatua antzematea.
2	3.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
3	3.1. Multzo honen berezko testu idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
4	3.1. Multzo honen berezko testu idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
5	2.5. Testu baten ideiak laburtzea
6, 7, 8, 9	3.3. Multzo honen berezko testuetan arlo akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea 3.4. Testuen ezaugarri hizkuntzakoak antzematea